

DIRU-SARRERAK

Alde batetik, zerbitzu-tasen bitartez. Hau da, bezeroak agentziari zuzenean ordainduko dizkion tasak. Izan daiteke; erreserba egiteagatik, aldaketak eta ezeztapenak kudeatzeagatik edo aholkularitza espezifikorengatik. Tasa horiek bidaia motaren arabera zehaztuko dira. Bidaiaen kostuak aldakorrak izango dira, adibidez, urrutiko helmuga bat denean, hegazkinaren prezioa nabarmen handia izango da (gutxi gora behera Tanzania: 3.361€), aldiz helmuga europarra denean, prezioa merkeagoa izango da (gutxi gora behera Londres: 1.980,78€), helmuga turistikoa denean ere prezioak nahiko altuak izango dira (gutxi gora behera Ibiza: 3.672,94€) eta azkenik, nahiz eta helmuga gertukoa izan hotela kalitatezkoa bada prezioak ere nahiko altuak izango dira (gutxi gora behera Zarautz: 2.089,8€).

Bestalde, produktu gehigarrietatik lortuko ditugu diru-sarrerak. Bezeroek bidaiarekin batera eros ditzaketen zerbitzuak izango dira, hala nola auto-alokairuak, jarduera turistikoak, bisita gidatuak edo tour espezifikokoak. Produktu horietan aplikatutako marjina bidaia motaren eta hornitzailearen arabera aldatuko da, baina betiere merkatuak ohikoak diren portzentajeetan oinarrituta.

Azkenik, pakete turistikoen bidez kasu batzuetan . Guk bidaia elementu ezberdinak (hegaldiak, hotelak) pakete bakar batean salduko ditugu eta bezeroak prezio bakar bat ordainduko du , elementu horien gainean marjina jartzen dugun bitartean. Hau da, adibidez elementu horiek agentziari 500€ kostatuz gero, paketea 600€-tara eskainiko dugu. Horrenbestez, irabazi zuzena lortuko dugu. Horrek %20 inguruko marjina suposatuko luke, eta irabazi zuzena bermatuko luke.

Gainera, deskontuak eskainiko dira kasu jakin batzuetan, batez ere talde handietzat edo erreserba kopuu handiak egiten direnean.

Azpimarratzekoa da, agentziaren kostu nagusiak just in time sortuko direla. Hau da, bidaiari lotutako gastu gehienak (hotelak, hegaldian, jarduerak, eta abar) bidaia saldu ondoren sortuko dira. Horregatik, diru-sarrerak sortu ondoren etorriko dira gastu handienak, eta horrek likidezia-arriskuak nabarmen murriztuko ditu, sektore honetan ez oso ohikoa izan arren.